BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

690

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 12koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat argitara emateko dena. Erabaki horren bitartez, zenbait diru-baliabide esleitzen dira Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2014ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2014ko otsailaren 3ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, esleitu egin ditu zenbait diru-baliabide, zehazki Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako diru-laguntzak 2014an finantzatzera bideratuko direnak (agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz). Gauzak horrela, Lanbideren Estatutuetako 10.2 artikuluaren p) idatzi-zatian xedatutakoarekin bat etorriz (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren), Lanbideko zuzendari nagusiak eman behar du argitara erabaki hori.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2014ko otsailaren 3ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzak 2014ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horrek oinarri arautzaileak ezartzen ditu, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bigarrena.– Ebazpen honen bidez jakinarazten den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNANDEZ.

ERANSKINA

ERABAKI, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUARENA, ZEINAREN BIDEZ ZENBAIT DIRU-BALIABIDE ESLEITZEN BAITIRA LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOAREN 1994KO APIRILAREN 13KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK 2014KO EKITALDIAN FINANTZATZEKO. AGINDU HORREK OINARRI ARAUTZAILEAK EZARTZEN DITU, LANGABEZIA-PRESTAZIOA ORDAINKETA BAKARREKO MODALITATEAN JASOTZEN DUTENEI GIZARTE SEGURANTZAKO KUOTEN ORDAINKETAN OINARRITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, 1044/1985 ERREGE DEKRETUAREN 4.2. ARTIKULUAN EZARRITAKOARI JARRAIKIZ.

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduak oinarri arautzaileakezarri zituen Gizarte Segurantzako kuoten diru-laguntzak emateko, ekainaren 19ko 1044/1985Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Bada, agindu horren helburua da kotizaziopeko langabezia-prestazioa jasotzen dutenen autoenplegua erraztera bideratutako diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza horien bidez, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitateanjasotzeko eskubidea baliatu dutenei Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egitenzaie, kuota horien egungo balioaren arabera, betiere, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak (geroagoko arauen bidez sartutako aldaketak erekontutan hartuta) ahalmena ematen dio erakunde kudeatzaileari langabezia-prestazioaren zenbatekoaaldi bakarrean ordaintzeko, egun duen balioaren arabera. Prestazioen onuradun hauei eginahal izango zaie ordainketa hori: batetik, kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide-langile edolan-bazkide gisa –modu egonkorrean– sartu nahi dutenei, eta, bestetik, % 33ko edo gehiagokodesgaitasuna izanik, langile autonomo bihurtu nahi dutenei.

Egun, lan-merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko otsailaren 10eko 3/2012Errege Lege Dekretua eta Ekintzaileari laguntzeko eta enpleguaren hazkundea eta sorrera estimulatzekoneurriei buruzko otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege Dekretua onartu ondoren, beste bitalde sartu dira langabezia-prestazioaren % 100eko kapitalizazioaren onuradunen artean: batetik, langile autonomo egin diren gazteak (30 urtera bitarteko gizonezkoak eta 35 urtera bitarteko emakumezkoak), eta, bestetik, hogeita hamar urtez azpiko gazteak, euren zenbatekoa erabili dutenakekarpen bat egiteko merkataritza-erakunde baten kapital sozialean, betiere merkataritza erakundehori sortu berria edo ekarpena egin aurreko hamabi hilabeteen barruan sortua bada, eta erakundehorretan egiten duten jarduera profesionala mugagabea bada, Gizarte Segurantzan duten erregimena gorabehera.

Eskubide hori baliatzen duten langileek jasoko duten diru-laguntza hauxe izango da: langile autonomogisa Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean duten kuotaren % 50aren ordainketa (gutxieneko kotizazio-mailaren arabera kalkulatuko da), edo, langileak – langabezia-prestazioajaso duen bitartean– Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenaren kotizazioetan egin duenekarpenaren % 100aren ordainketa, baldin eta langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitateanjaso ez bada.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu egin zitzaizkion Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak. Geroztik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumena da

enpleguko, enplegu-prestakuntzako eta autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programak kudeatzea.

Ez dago autonomia-erkidegoko araudi bat, kotizaziopeko langabezia-prestazioaren % 100 ordainketa bakarrean jaso dutenei autoenpleguko ekimenak martxan jartzea erraztuko dieten laguntzak arautuko dituena. Horregatik, horrelako araudi bat landu eta indarrean jarri bitartean, diru-laguntzen programa hori gauzatu behar da, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuanezarritakoa betez.

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduak indarraldi mugagabea dauka. Bestalde, laguntza horiek emateko prozeduran, ez da lehiaketaren teknika erabiltzen. Esleitutako aurrekontu-kreditua, edo haren eguneratzetik sortzen dena, izango da laguntzak emateko muga, berariaz hala ezarrita baitago aginduaren lehenengo xedapen iragankorrean.

Hori dela-eta, diru-laguntzak emateko prozeduran errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluaren 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazi egin behar da zein den aipatutako aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa, bai eta zenbateko hori eguneratzetik sor litekeen zenbatekoa ere.

Bestalde, diru-laguntza horiek kudeatzen dituen Administrazioa aldatu dela kontuan hartuta, publikotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak errespetatzeko, komeni da laguntzenonuradun izan daitezkeenei informazioa ematea, diru-laguntzen prozedurarekin eta aplikatu beharrekoerregimen juridikoarekin zerikusia duten alderdi jakin batzuei buruz.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2013ko apirilaren 22ko bilkuran proposamena aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du,

ERABAKIA

Lehenengoa.– 500.000 euroko diru-baliabideak esleitzea, 3211-Enplegua programaren kargura, 1994ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko. Izan ere, aipatu aginduak arautu zuen Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan oinarritutako diru-laguntzak ematea ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuaren 1. artikuluan ezarritako eskubidea baliatzen dutenei, betiere Errege Dekretu horren 4.2 artikuluanezarritakoari jarraikiz.

Laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatu zenbatekoa edo, indarreko legeriaz bat aurrekontu-aldaketak onartzen badira, zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena. Eguneratzerik izango balitz, horren berri argitara eman beharko litzateke EHAAn, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez eman ere.

Bigarrena.– Diru-laguntza horien kudeaketari buruzko alderdi hauen gaineko informazioa ematea (alderdi horietan eragina izango du Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen antolakuntzakoeta erregimen juridikoko araudiak zuzenean aplikatzeak):

– Ebazpen honetan aipatzen diren diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira. Deialdi honen eranskinean ageri da eredu hori, eta honako toki hauetan ere eskuratu ahal izango da: http://www.lanbide.net web-orrian; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz); eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurraldeetako enplegu-bulegoetan.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lan Aktibazio Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta Lanbide erakunde autonomoko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

– Ebazteko, gehienez sei hilabeteko epea izango da, diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkezten den egunaz geroztik, eta epe hori igarotakoan ebazpenik eman ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela hartuko da kontuan.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

– Diru-laguntzen programa honen kudeaketan aplikagarria izango den diru-laguntzen erregimen juridikoa honako xedapen hauetan dago jasota: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko VI. Tituluan eta VII. Tituluko III. Kapituluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, azken horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari agintzea erabaki honen berri jakinarazi dezan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

I. ERANSKINA

ESKAERA, langabeziako prestazioa ordainketa bakar osoko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzaren kuotetarako diru-laguntzak ematekoa, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduari jarraikiz.

I – ESKATZAILEAREN DATUAK

N.A.N.	Izena	1. abizena	2. abizena

Ohiko Helbidea	Zk.	Blokea	Eskailera	Sol.	Atea.

Herria	Posta Kodea	Lurralde Historikoa

1- Telefonoa	2- Telefonoa	Posta elektronikoa

II – JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA (aurreko puntuan jarritako helbidearekin bat ez datorrenean bete beharrekoa)

Ohiko Helbidea	Zk.	Blokea	Eskailera	Sol.	Atea

Herria	Posta Kodea	Lurralde Historikoa

ADIERAZTEN DU: Langabeziako Kotizaziopeko Prestazioa –Ordainketa Bakar Osokoaren modalitatean– onartu eta ordaindu zaiola.

ESKATZEN DU: Langabeziako Prestazioa jasotzen dutenei Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko diru-laguntza ematea, Ordainketa Bakar Osokoa modalitatean, eskabide honekin batera atxikitzen diren Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentuen aldiari dagokionez.

1994ko apirilaren 13ko Aginduaren 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-laguntza ordaintzeari dagokionez, kotizazio-buletinak aurkezteko epea 6 hilabete izango da, diru-laguntza eman den hilabetetik kontatzen hasita.

Horretarako, 1994ko apirilaren 13ko Ministerio Aginduari jarraikiz, eskaera honen atzeko aldean zerrendatuta agertzen den dokumentazioa AURKEZTU DU eskaerarekin batera eta, bereziki, honako hauek:

(dagokiona X batez seinalatu)

☐ A) Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuz gero

- Eskatutako aldi guztiko nominak
- Eskatutako aldi guztiko TC1 eta TC2 agiriak

☐ B) Gizarte Segurantzaren Langile Autonomoen Araubide Berezian sartuz gero

- Autonomoen Matrizea edo eskatutako aldi osoari dagozkion hilabeteetan ordaindu izana egiaztatzen duen ordainagiria, Finantza Erakundearena.

ZINPEKO AITORPENA

Nik,…… jaunak/andreak, diru-laguntzaren eskatzailea naizenez,

ZIN EGITEN DUT:

(dagokiona X batez seinalatu)

Lehenengoa.

☐ Ez nago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere organismo autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako inolako dirua itzularazteko prozeduraren edo zigorrak ezartzeko prozeduraren barruan.

Bigarrena.

☐ Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor- zein administrazio-arloko zehapenik jaso, ezta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere.

Hirugarrena.

☐ Ez dut sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, ezta euskal administrazio publikoen laguntza eskuratzeko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela bide.

Laugarrena.

☐ Eskari honetan ezarritako datu guztiak egiazkoak dira.

NORTASUN DATUAK EGIAZTATZEKO BAIMENA (dagokiona X batez seinalatu)

☐ BAI: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari baimena ematen diot nire nortasun datuak, elektronikoki egiazta ditzan

☐ EZ: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari ez diot baimenik ematen nire nortasun datuak elektronikoki egiazta ditzan

(Oharra: baimenik ematen ez bada NANa aurkeztu behar da)

……n, ……(e)ko ……aren …(a).

Eskatzailearen sinadura

ESKAERA IZAPIDETZEAN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN EGINBIDEA
(LANBIDEk betetzekoa)

DOKUMENTUA	HILABETEA	URTEA	JASOTAKOA	ESKATUTAKOA
Hirugarren Interesduna – Datuen Alta				
Erantzukizun-aitorpena				
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kapitalizazioa emateko ebazpena				
Desgaitasun-ziurtagiria, hala badagokio				
NANaren fotokopia (nortasun datuak egiaztatzeko LANBIDE E.E.Z.ari baimeni eman ez badio, soilik)				
Nominak eta TC1, TC2 edo Autonomoen Matrizea				
Nominak eta TC1, TC2 edo Autonomoen Matrizea				
Nominak eta TC1, TC2 edo Autonomoen Matrizea				
Nominak eta TC1, TC2 edo Autonomoen Matrizea				
Nominak eta TC1, TC2 edo Autonomoen Matrizea				
Nominak eta TC1, TC2 edo Autonomoen Matrizea				

Egiaztatze Eginbide hau eman da, formulario honetan bildutako datuen eta dokumentu horietan agertzen diren datuen edukiak zehatz-mehatz bat datozela adierazteko.

Dokumentuak aurkezteko eskatzen bazaio, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71. artikuluan xedatutakoari jarraiki, 10 eguneko epea izango du aurkezteko; epea igaro eta dokumenturik aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere aldez aurretik Ebazpena emanda. Dena den, beste eskaera bat aurkezteko aukera izango du, eskubidea preskribatu ez bada edo, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, dagokion Ebazpena eman ahal izango da.

……, ……(e)ko ……aren …(a).
(Eskaera aurkeztu den eguna eta hartzailearen sinadura)

(Unitatearen zigilua)

DATUAK BABESTEA: Eskaera honetan datu pertsonalak agertzen dira eta datu horiek LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren fitxategi batekoak dira; interesdunak baimena ematen dio LANBIDEri datu horiek modu automatizatuan tratatzeko, betiere eskaerak eragindako eginkizunak kudeatzeko xede bakarrez eta, hala badagokio, baita 1994/07/27ko Aginduan, 1995/05/19ko Aginduan, martxoaren 4ko TAS/628/2002 eta apirilaren 29ko TAS/1257/2003 Aginduetan aurreikusitako erakundeei lagatzeko ere, kudeaketa osatzearren. Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Lege Organikoari jarraiki, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango du Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan